



**2018KO URRIAREN 19KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urriaren hemeretziaren, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturako onespenera aurkeztzen da 2018ko urriaren 5ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 95 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEI MILA HIRUREHUN ETA HAMAZAZPI EURO ETA HAMAIHIRU (40.317,13 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 11-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea irailaren 10etik aurrera, astean 4 ordutik 10 ordura, onuradunaren osasun egoerak okerrera egin duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24 da.
- 18-11-06 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea irailaren 14an, onuradunak berak hala eskatuta.
- 17-11-02 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea irailaren 25etik aurrera, astean 6 ordutik 9 ordura, bere osasun egoerak okerrera egin duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %61 da.
- 17-11-08 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea onuradunaren heriotzagatik.
- 13-11-06 zbk.dun esped.: onuradun bati baja ematea 2018ko urriaren 4an hil delako; beste onuradun bati zerbitzuan alta ematea 2018ko urriaren 8an, astelehenetik larun-

batera, egunean ordu eta erdi, laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15ekoa izango da.

- 18-11-08 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2018ko irailaren 21ean, etxeko garbiketa eta enkarguak egiten laguntzeko. Astean 4 ordu. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %35 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 18-01-012 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92.50 €ko diru laguntza ematea, abuztutik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 18-01-013 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46,25 €ko diru laguntza ematea eta alokairu gastuetarako hilean 125 €ko diru laguntza ematea, urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kirol Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako akordioak hartu ditu:

- Kirol taldeei diru laguntzak.- Herriko kirol talde ezberdinei, 2018ko jarduketagatik, ondorengo diru laguntzak ematea:

KIROL TALDEA	ZENBATEKOA
LKE - futbol taldea	11.911 €
LAPKE - pilota taldea	1.697 €
Ordizia igeriketa taldea	450 €
Txindoki atletismo taldea	671 €
Amalur mendizale taldea	877 €
Txirrindulari elkarte	632 €
Antzar korrikalari taldea	1.224 €
Goierri Gorri futbol kluba	3.538 €
GUZTIRA	21.000 €

- Amalur mendi elkarte.- 2018ko kirol astearen barruan, urriaren 2an "Mendi jarduera ezberdinak Pirineo eta Alpeetan" ikus-entzunezkoa eta urriaren 6an antolatu zen eskalada eta mendi jolasen ekintzarengatik 660 €ko diru laguntza ematea.
- Goierriko mendizale beteteranoak.- 2018ko kirol astearen barruan, irailaren 26tik urriaren 5era antolatutako "Amets gauzatua" argazki erakusketagatik eta urriaren 3an antolatutako "10 urteko uzta" ikus-entzunezkoagatik 400 €ko diru laguntza ematea.
- Antzar korrikalariak.- Irailaren 29an antolatutako Lazkaoko duatloi eskolarraren antolaketa-gatik 300 €ko diru laguntza ematea.

V.- "LAZKAON" MERKATARIEN ELKARTEAREKIN HITZARMENA.-



**LAZKAOKO
UDALA**

"Lazkaon" Lazkaoko Merkatarien Elkarteari 2018ko udazkenean "Lazkao Txiki Kontu Kantari" kanpainaren antolaketarako 2.350 €ko diru laguntza eta abendu, gabonei begira, "erakusleihu lehiaketa" ekitaldiaren antolaketarako guztira 10.200 €ko diru laguntza ematea planteatzen da.

Diru laguntza hauek emateko baldintzak, udala eta "Lazkaon" Lazkaoko Merkatarien Elkartearen arteko lankidetzat hitzarmenean jasotzen dira.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du hitzarmenarekin ados dagoela baina eskatutako nahiko lukeela parte hartze handiagoa izateko aukera edukitzea udala eta merkatarien arteko bilkuretan parte hartuz.

Alkateak erantzuten dio esanez hori kudeaketa dela eta kudeaketa, horretarako izendatuta dagoenaren esku gelditzen dela.

Hau guztiaren ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, hitzarmena eta bertan jasotzen diren diru laguntzak onartzea erabakitzen ditu.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du gizarte langile baten amatasun baja aurreikusiz, ordezko langile bat hartu dela, dagokion hautaketa prozesua egin ondoren. Bestalde eta lan sustapenean, bailararako GOIEKIren bidez lantzen den programaren barruan, bi langile hartuko direla 6 hilabeterako, eta une honetan Lanbiden egin behar den izen ematea irekita dagoela eta epea urriaren 22an amaitzen dela. Azkenik, San Inazioko atzekaldeko berrurbanizazio lanak Construcciones Etxaideri esleitu zaizkiola esaten du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamazazpi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



**LAZKAOKO
UDALA**